

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak gizarte- eta politika-kontsentsuaren alde egin du osasun-sistemaren beharrezko eraldaketari ekiteko

Hala adierazi du "Osasungintzaren eraldaketa XXI. mendean" jardunaldiaren inaugurazioan zehar

Astelehena, 2018.eko martxoak 12

"Kontsentsu sozial, politiko eta profesionala faktore gakoak dira osasun-sistemaren eraldaketari ekiteko, abiatutako politikien jarraitutasun nahikoa bermatzeko moduan". Hala adierazi du Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak "Osasungintzaren eraldaketa XXI. mendean" nazioarteko jardunaldiaren inaugurazioan, gaur goizez, Baluarte Biltzar Jauregi eta Auditorioan. Lehendakariarekin batera izan dira irekiera-ekitaldian Fernando Domínguez, Osasuneko kontseilaria, eta Oscar Moracho, zuzendari gerentea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, ekitaldia antolatzearen ardura izan duen erakundea.



Uxue Barkos Lehendakaria, XXI. mendeko osasungintzaren inguruko jardunaldira gerturatutako publikoarekin hizketan.

Uxue Barkosek, gainera, Nafarroako Gobernuak osasunaren alde egiten duen apustu irmoa nabarmendu du, legealdiko lehentasunezko helburuetako gisa ezarria. Gainera, herritarren eta gizarte zibilaren babesaren beharra ere azpimarratu du, datozen urteetan osasun-sistemaren erronka sozial, demografiko edo teknologikoei aurre egiteko, esaterako: bizi-itxaropenaren hazkundea, hiritar eta pazienteen profil informatuagoa eta eskatzailea edo arreta-teknologiaren aurreratzea bestek beste, dena inguru ekonomiko murriztaile batean.

Bere hitz-hartzeari bukaera emateko, "Gobernuak osasun-sistemarako sarbide unibertsala bermatzen jarraitzeko duen borondate tinkoa" berriz nabarmendu nahi izan du Lehendakariak, "Nafarroan bizi diren herritar guztientzat".

Erronka berriak



Estatuko eta Europako hizlariak Osasunari

Espainiako puntu guztietatik etorritako 200 pertsona ingururen parte-hartzea izan du jardunaldiak: autonomia-erkidegoetako osasun-arduradunak, alderdi politikoetako, sindikatu etako, elkargo profesionaletako, pazienteen elkarte etako eta hiritarren partaidetzarako erakunde etako ordezkariak, beste askoren artean, eta baita osasungintzako profesionalak eta osasungintzaren bilakaera-prozesuan interesa duten pertsonak.

buruzko jardunaldietan, Oscar Moracho Osasunbideako zuzendariarekin batera.

Inaugurazioaren ondoren, SI-Health institutuko Patricia Arratibelek osasun-zerbitzuek aurre egin beharreko erronkak azaldu eta zehaztu ditu. Segidan, Göran Henriks Suediako Kultura berrikuntzarako eta ezagutzarako zentroko adituak eta David Hunter, Newcastleko Unibertsitateko Osasunaren eta Gizartearen Institutuko adituak, etorkizunera begira European egon daitezkeen lan-ildo posible batzuk azaldu dituzte eta Nafarroako estrategiaren orientabide berritzaile eta abangoardiakoa nabarmendu dituzte.

Oscar Moracho Osasunbideako zuzendari gerenteak, bere aldetik, "Osasunbidea: Osasunaren alde bidea eginez" estrategia nafarraren orientabide eta jardun-ildo nagusiak azaldu ditu, aldi berean erdietsi beharreko lau helburu handitan oinarrituta: Nafarroako biztanleen osasuna hobetzea, pazienteen eta herritarren zaintzak eta esperientzia, osasun-sistemaren efizientzia eta profesionalen inplikazioa eta asebetetzea.

Oscar Moracho Nafarroako osasun-sistemaren inguruan jardun da, erreferentziazko sistema bat, "urte askotako esfortzuekin, inbertsio teknologiko eta ezagutzazko inbertsio garrantzitsuekin eta talentu eta konpromiso profesionalarekin eraiki dena". Hala ere, nabarmendu nahi izan du mendebaldeko gizarteak une erabakigarrian daudela eta erronka handi bati aurre egin behar diotela datozen urteetan sistemaren jasangarritasuna eta hobekuntza bermatzeko. "Zahartzearen eta kronikotasunaren areagotzea, haziz doazen aukerak, gizartearen gehiegizko medikalizazioa edo aukera berriak irekitzen dituzten aurrerapen teknologikoen gehitze etengabea, nahiz eta mantentzen zailak diren eskaeraren areagotzea sortu", baieztatu du.

Azaldutako egoeraren kontrapuntu gisa, beti mugatua den inguru ekonomiko bat dago, "zaintzen eta zerbitzuen zatiketarekin, estamentuen arteko koordinazio-faltarekin, arauen zurruntasunarekin eta sistemak erreaktibotasunerako eta zerbitzuak emateko duen inertiarekin, esfortzuak problemen prebentziora eta ebazpen efektibora zuzendu beharrean". Guzti horiek "gure erantzunen gaitasuna eta jasangarritasuna arriskuan jartzen duten oztopoak dira".

Jardunaldiak mahai-inguru batekin egingo du aurrera, Patricia Gómez Balearretako Osasun kontseilariarekin, Enrique Ruiz Escudero Madrileko kontseilariarekin eta Jon Darpón Euskadiko kontseilariarekin. Bertan, osasun-sistemaren beharrezko eraldaketan arrakasta izateko zailtasun eta faktore gakoak aztertuko dira.

Segidan, Alfredo Martínez Larreak hartuko du hitza, Pazientearen Osasun Arretarako zuzendariak, hari buruzko ondorioen azalpen batekin. Fernando Domínguez kontseilariak emango dio amaiera jardunaldiari.

Galería de fotos



Público asistentes. Acudieron cerca

de 200 personas.